

3.2 GAIAREN LANKETA

> Lehen, egunero, orain, gero



- Egunero
 - Argazkiak

Helburuak

- Egunero egiten dituzten gauzak kontatzen ikastea.
- Euren eguneroko gauzez hitz egitea.

Prozedura

- Umeei Oiameko umeek egunero egiten dituzten gauzen argazkiak erakutsi.
- Joxeren gutunari erreferentzia egin (Joxek bere gutunean agindu zien argazkiak bidaliko zizkiela)
- Hezitzaileak argazkietan ikusten dena kontatu. Ahoskatu ondo egunerokotasunaren marka (TEN/TZEN).
- Umeei azaldu egunero egiten ditugun gauzak kontatzeko aditzari -ten edo -zen jartzen diogula.